

GOBERNU BATZARRA

2016. 05. 30

Alkatea: Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko maiatzaren hogeita hamarrean, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzaitzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Ikerketa: Tolosako Udalaren Sustapen ekonomikorako planari buruzko gogoeta estrategikoa.
- 3.-Tolosako Udala eta Ibarra Udalaren arteko hitzarmena 15.1 Tolosana azpiesparruko urbanizazio mantenu lanen baldintzak ezartzeko.
- 4.- Tolomendirekin hitzarmenak.
- 5.-Tolosako Babarrunaren kofradiaren likidazioa eta hitzarmena.
- 6.-Merkataritza, Ostalaritza, Turismo eta Feriak dinamizatzeko zerbitzuaren kontratazioa.
- 7.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.
- 8.-Indarrean dagoen agenda 21eko ekintza planean ekintza berri bat, zarata mapa berritzearen ingurukoa, gehitzeko proposamena.
- 9.-16/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko maiatzaren 23an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Ikerketa: Tolosako Udalaren Sustapen ekonomikorako planari buruzko gogoeta estrategikoa.

B+I enpresak aurkeztutako proposamena ikusita eta Ekonomia Sustatzeko batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- “Tolosako Udalen Sustapen Ekonomikorako planari buruzko gogoeta estrategikoa” ikerketa B +1 enpresari ematea.

BIGARRENA.- 17.000 gehi BEZako aurrekontua, hurrengo kreditu aldaketaren kargura onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ekonomia Sustatzeko batzordeari eta B+I enpresari.

3.-Tolosako Udala eta Ibarako Udalaren arteko hitzarmena 15.1 Tolosana azpiesparruko urbanizazio mantenu lanen baldintzak ezartzeko.

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen behin betiko onespena ematea “15.1 Tolosana-Igerondo” azpiesparruko Urbanizazio Proiektu Aldatuaren Testu Bateginari.

Espediente honen harira, behin betiko onarpena eman aurretik, Ibarako Udalari bere edukiaren berri eman zitzaion, urbanizazioaren zati txiki bat Ibarako Udalaren lurretan dagoelako.

2015eko urriaren 7an Ibarako Udalaren txostenak sarrera izan zuen eta, bertan, hainbat aldaketa egitea eskatzeaz gain, bi herrien arteko eremu mugakideko mantenimendu baldintzak jasoko dituen hitzarmena sinatzea eskatzen zen.

Tolosako Udalak Ibarako Udalaren ekarpenak ontzat eman zituen eta behin betiko onarpenaren erabakiaren baitan jaso ziren. Ekarpen horien artean Ibarako udalerrian kokatzen den azaleraren kudeaketa eta mantenua Tolosaren kargu izatea aipatzen zen, espaloi zatia eta Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion errepede mantenua izan ezik.

2015eko azaroaren 2ko Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak Ibarako Udala eta Tolosako Udalaren artean hitzarmena sinatzea onartu zuen.

Behin hitzarmen zirriborroa prestatuta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 15.1 Tolosana azpiesparruko urbanizazio mantenu lanen baldintzak ezartzen dituen hitzarmena onartzea. Alkateak arduratuko da hitzarmena sinatzeaz.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Hirigintza departamentuari eta interesatuei.

4.- Tolomendirekin hitzarmenak.

Tolomendirekin bi hitzarmen sinatu ziren 2015eko maiatzaren 5ean urte baterako: alde batetik, asteroko azoka dinamizatzeko eta bestetik, Ordiziako udala eta Goimen-ekin lankidetzaz hitzarmena Gipuzkoako azokak indartzeko.

Orain, Tolomendirekin alde batetik, akordio marko bat sinatuko da 3 urtetarako eta, bestetik, asteroko azoka dinamizatzeko hitzarmena urte baterako. Momentuz, Ordiziako udala eta Goimen-ekin ez da sinatuko hitzarmenik EHUKo ikerketaren emaitzak izan arte.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, eta Merkataritza, Feriak eta Turismo departamentuak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolomendirekin Akordio markoa eta asteroko azoka dinamizatzeko hitzarmena.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Merkataritza, Feriak eta Turismo departamentuari eta Tolomendiri.

5.- Tolosako Babarrunaren kofradiaren likidazioa eta hitzarmena.

Tolosako Babarrunaren Kofradiak 2015eko likidazioa egiteko dokumentazioa aurkeztu du eta hitzarmenean jasotzen den 2.140 euroko dirulaguntza emango zaio. Tolosako Babarrunaren kofradiaren barruan aldaketa egon da, bost edo sei gazte sartu dira eta orain Batzar Orokorra egingo dute eta lehendakari aldaketa egingo da. Tolosako Babarrunaren kofradiarekin ete hitzarmen berria sinatuko da 3 urtetarako.

Aurrekoa kontuan izanda, Gobernu Batzar honek, aho batez eta Merkataritza, Feriak eta Turismo departamentuak jaulki duen proposamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Babarrunaren kofradiaren eta Udalaren arteko hitzarmena

BIGARRENA.- Hitzarmenean jasotako 2.140€ko dirulaguntza ematea Tolosako Babarrunaren Kofradiari.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Merkataritza, Feriak eta Turismo departamentuari eta Tolosako Babarrunaren kofradiari.

6.-Merkataritza, Ostalaritza, Turismo eta Feriak dinamizatzeko zerbitzuaren kontratazioa.

Abuztuan plegu batzuk onartu ziren Merkataritza, Ostalaritza, Turismo eta Feriak dinamizatzeko zerbitzua kontratatzeko. Kontratua urte baterako zenez, orain berriro pleguak atera behar dira, baina kasu honetan urte baterako gehi beste urte baterako, eta kontratazio prozedura irekia izango da.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Merkataritza, Ostalaritza, Turismo eta Feriak dinamizatzeko zerbitzuaren kontrataziorako espedientea, baldintza pleguak eta dagokion gastua.

BIGARRENA.- Espedientea tramitatzea behar den deialdia argitaratuz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Merkataritza, Feriak eta Turismo departamentuari.

7.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratu zen.

La Norma Foral 4/2012 de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG n.º 131, de 10 de julio de 2012.

Udalbatzak, 2015eko urriaren 27an egindako osoko bilkuran, eta 2016ko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantza fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekarua mantentzea erabaki zen aipatutako zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerrako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabilera-lagapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 27 de octubre de 2015, y a efectos del ejercicio de 2016, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Espedientean azaltzen den zergadunak ez dago bertan azaltzen den etxebizitzan erroldatuta.

Hala ere, errenergua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen:

“Errekargu honen helburuen espirtu eta irizpideekin bat datorren kasuetan, Gobernu Batzordeak erabakiko du errenergaren salbuespena onartzea ala ez”.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal de habitantes que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

La contribuyente que figuran en el expediente no está empadronada en dicha vivienda.

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo: *“En los casos que estén de acuerdo con el espíritu y criterios de los objetivos de este recargo, la Comisión de Gobierno decidirá la admisión o no de la exención del recargo”.*

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatutako zergaren kuotaren %50eko errenergua aplikatzea 1. eranskinean Idazkariak diligentziatuta agertzen den zergadunari, zeren 2016ko urtarrilaren 1ean ez zelako inoren ohizko etxebizitza.

BIGARRENA.-Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

ACUERDA

PRIMERO.- Aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto a la contribuyente que figuran en el anexo 1, que, en relación diligenciada por el Secretario, constan en el expediente, ya que a fecha 1 de enero de 2016 dicha vivienda no era vivienda habitual de persona alguna.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a la interesada.

.....

Solicitud de J.O.S.

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

La Corporación Municipal, en sesión realizada el 27 de octubre de 2015, y a efectos del ejercicio de 2016, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de la uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

El recurrente es propietario de la vivienda sita en Errementari 46-1 esk. Sin embargo, el día 1 de enero de 2016, fecha de devengo del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, nadie estaba empadronado en dicha vivienda.

El día 12 de abril de 2016, **J. O. S.** presentó una alegación indicando que dicha vivienda era su vivienda habitual. Ha presentado el justificante del empadronamiento con fecha 12 de abril de 2016 y la escritura de compraventa de la vivienda (06/11/2016) en la que aparece que la finca se va a destinar a su vivienda habitual.

La Junta de Gobierno, con fecha 18 de abril de 2016, desestimó la alegación, ya que no acredita que, con fecha 1 de enero de 2016, la vivienda sita en Errementari 46-1 era vivienda habitual del alegante.

Con fecha 20 de mayo de 2016, ha presentado un recurso de reposición contra dicho acuerdo, señalando que:

- el día 25 de octubre de 2015 envió un email al Ayuntamiento de Tolosa para indicar que dejaba la vivienda de alquiler social para jóvenes de Euskal Herria 1B.

- aporta diferentes facturas (electricidad, teléfono fijo...)

A juicio del alegante, con ello, queda demostrado que la vivienda de Errementari 46-1 esk no estaba vacía, pero no que era la vivienda habitual de alguien.

Si bien, el día 1 de enero de 2016, no había nadie empadronado en la vivienda, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo:

“En los casos que estén de acuerdo con el espíritu y criterios de los objetivos de este recargo, la Comisión de Gobierno decidirá la admisión o no de la exención del recargo.”

Una vez analizada la propuesta presentada, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

A C U E R D A

PRIMERO.- Desestimar el recurso y, en consecuencia, aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto de la vivienda Errementari 46-1º drcha ya que a fecha 1 de enero de 2016 dicha vivienda no era residencial habitual de persona alguna.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

8.- Indarrean dagoen agenda 21eko ekintza planean ekintza berri bat, zarata mapa berritzearen ingurukoa, gehitzeko proposamena.

Tolosko udala Zarata mapa berritzen ari da. Lehen zarata mapa 2005. urtean egin zen eta 2013/2012 Dekreturen arabera 5 urtean behin berritu beharra dago.

Lan honen finantzaketan laguntzeko GFA-ri dirulaguntza eskaera egin zaio, agenda 21eko dirulaguntzen lerroa erabiliz hain zuzen. Gipuzkoako Foru Aldunditik jaknarazi dute dirulaguntza honen eskaera egiteko beharrezkoa dela udaleko agenda 21eko ekintza planean ekintza hau barneratua egotea. Diputaziotik aholkatu dute ekintza planean zarata mapa berritzeko ekintza gehitzea.

Hori dela eta, beharrezkoa ikusten da ekintza berri bat txertatzea indarrean dagoen Agenda 21eko ekintza planean. Ekintzaren identifikazio zenbakia eta erredakzioa ondorengo izango da:

1.16.4 Udalak duen Zarata mpa eguneratzea 2013/2012 dekretura egokitzeko.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea indarrean dagoen Agenda 21eko ekintza planean adierazpen zatian aipatutako ekintza gehitzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtzari eta Ingurumena departamentuari.

9.-16/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzailtzak **16/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **242.954,35 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **16/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatu da:

lurreamendi egoitzari ekarpena.

Tolosako Udalaren 2016ko aurrekontuetan 440.000,00 euroko transferentzia aurreikusten da lurreamendi Egoitzarientzat.

Transferentzi honen helburua bikoitza da:

* Tolosako egoiliarrengatik dagokion ekarpena ordaintzea.

* Egoitzan sorten den defizita eskaltzea.

Iurreamendiko zuzendaritzatik jasotako datuen arabera, 2016ko lehendabiziko sei hilabetean aurreikusten den defizita 98.900,00 eurokoa da. Proposamen honi erantsi zaio partidaz partida egindako aurreikuspena.

Defizit honen ondorioz, eta datozen bi hilabetetan aurreikusita dauden ordainketak kontutan harturik, diruzaintza jeitsi egindo dela aurreikusten da.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Iurreamendi egoitzari 98.900,00 euroko lehen ekarpena egitea, 2016ko lehendabiziko sei hilabetean aurreikusten den defizita finantzatzeko.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departamentuari eta Iurreamendi egoitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde